

Munduko XV.



Futbol Txapelketa

Aldaketa taktikoaren garrantzia

ERRUMANIA

Prunea (*); Petrescu (**), Lupescu (*), Belodedici (*), Prodan (*), Selymes (**); Munteanu (*), Popescu (*), Hagi (**); Raducioiu (*), Dumitrescu (*). Mihali (-) Raducioiuren ordez (83. min.), eta Mihali (-) Belodediciren ordez (86. min.).

EEBB

Meola (*); Clavijo (●), Lalas (*), Balboa (*), Caligiuri (*); Ramos (●), Dooley (*), Sorber (*), Harkes (*); Stewart (●), Wynalda (●). Cobi Jones (●) Ramosen ordez (63. min.) eta Wegerle (-) Sorberren ordez (74. min.).



Lehen zatiko hamazazpigarren minutuan sartu zuen gola Petrescu eskuin lateral errumaniarrak.

EFE

GOLAK: 1-0: Petrescu (17. minutua).

ARBITROA: Mario Van der Ende (Hollandia). Lau txartel hori: Petrescu, Raducioiu, Clavijo eta Harkes.

ENEKOITZ ESNAOLA / DONOSTIA



Estatubatuarrak, jakina den bezala, ez dira teknika handiko jokalaririk. Azkarrak, diziplinatuak eta borrokalariai bai, baina teknika eta sormena falta dute. Mundialeko bi partiduetan, batez ere Kolonbiaren kontra, arriskua bi aurrelarietara —Wynalda eta Stewarti— baloia luze bota eta hauek atzelarietara bizkarra hartuz sartu zuten. Kolonbiako Perea eta Escobar galduta ibili ziren neurketa osoan

zehar; ez zekiten nola gelditu estatubatuarren jokoa. Garbi zegoen baloia luze botata egiten zirela min. Estatubatuarrak hain zuzen ere horrelaxe hautsi zuten partidua. Hori ikusiko zuen Anghel Iordanescu hautatzaile errumaniarrak. Bai horixe, igandean erabilitako taktika estatubatuarren jokoa ezerezean uzte-

ko proposa baitzen. Asmatu zuen, bai, 1-5-3-2ko sistema ateratzean. Libero Belodedici kokatu zuen, zentral postuetan Lupescu —ordura arte zelai erdian— eta Prodan —ordura arte ezker laterala—, bi lateralak Petrescu eta Selymes izanik.

EEBBek lehen minutuetan arriskua sartu, sartu zuten, bu-

rukada bat kanpora eta jaurtiketa bat zutoinera botaz. Baina errumaniarrak zelai gainean ongi kokatu ondoren, estatubatuarren arriskua ezerezean gelditu zen, desagertu. Lupescu, Belodedici eta Prodanek ez zuten lan handirik izan etxekoen baloi luzeak kontrolatzeko. Gainera, Petrescu eta Selymes lateralek aurrera

joateko askatasun osoa zeukaten. Baita ederki joan ere; izan ere, errumaniarren arrisku handiena hegaletatik etorri zen. Horren adierazgarri partiduko gol bakarra. Hagik ezker hegalean pase sakona sartu zion Selymesi, honek atzera Hagiri, hamar zenbakiak area inguruan horizontalean Raducioiuri, goleatzaileak sakonean eskuin hegaletik barneratu berria zen Petrescuri, eta honek erdiratu egin beharrean atera jaurti eta gola. Taldeko gola.

Estatubatuarrak ez ziren eroso jokatzeko ari, are gutxiago gol honen ondoren. Errumania, berriz, lasai, oso lasai. Gainera, 2-0 jartzeko aukera izan zuen lehen zatiko azken minutuan, Hagik hogeita hamar bat metrotik botatuko baloia ihes egin baitzion Meola atezainari, ia-ia bere atean sartuz. EEBBetako selekzioak area kanpoko jaurtiketatara, faltetara eta corner-etara jo behar izan zuen. Gol bat sartzekotan ere egon zen, Errumaniak ez zituelako area kanpoan aske gertatzen ziren baloia urrutitzen.

Errumania, beraz, final zortzirenetara. Lehen postuan sailkatu da, bi partidua irabazi eta bat galduta. Igandean nahikoa zuen berdinketa bat Kolonbia kanpoan uzteko. Estatubatuarrak, hirugarren A Multzoan, final zortzirenetara sailkatuko dira ziurrenik. Suitzarrek, estatubatuarrak bezala, lau puntu dituzte, baina golen diferentzia hobea dute. Beraz, bigarren sailkatu dira.

Jose Angel
IRIBAR



Errematea

Buzoa jantzita

Kolonbiako selekzioaren porrota aipatuko dut gaur. Ezuste izugarria izan da Pacho Maturanaren taldea lehen fase honetan kanporatzea. Garbi dago kritikari eta entranatzaile guztiok ez dugula asmatu faboritotzat jartzerakoan. Selekzio honen jokaera asko aldatu da sailkapena lortu zuenetik honantz. Nahiz eta joko sistema berberarekin jokatu, zonakako markaketa berarekin eta nahiz eta jokalaririk berberak erabili, futbolaren interpretazio motelena eskaini dute.

Lehenik esan beharra daukat, jokalaririk onenak ere buzoa jantzita atera behar duela lehenik eta behin zelaira. Talde batean jokalaririk bat edo bi frakarekin eta pajaritarekin ateratzen badira, akabo. Horixe gertatu zaio Kolonbiari Errumania eta Estatu Batuen aurkako partiduetan, eta emaitza hor dago.

Sailkapen fasean Argetinaren aurka lortu zuen 0-5 historikoak ondorio txarrak ekarri dizkio. Harrokeria txarra baita kiroltan ere, eta umiltasuna eta taldeko lana behar-beharrezkoak. Harrokeriaz jokatzeak nahastu egin du kolonbiarrek ohizkoak duten jokoa

eta futbito antzerakoa bihurtu da hau. Pase motzetan oinarritua, baloia beti oinean edukiz eta defentsatik erasorako transizioa motel eginaz.

Erasoak berriz, erdi-erditik antolatu eta bukatu nahian ibili dira, eta hori aurrelari trebeneentzako ere oso zaila da. Hegaletan eduki dituzten espazio libreak (Valencia, Pinilla, Rincon, Valderrama eta abar oso erdian kokatuta egon baitira) ez dituzte aprobetxatu, zeren atzetik inork ez baitu ahalmenik eta sentidurik eduki hortik erasora ekiten. Aurrelarietara beraien artean ez dute bat egin eta desmarkeak beti laguntzakoak egin dituzte, hau da, ateari bizkarra emanez. Horrela, aurkakoen markaketa gaintzea ezinezkoa egin zaie. Inoiz ez dute baloia sartu espazio libreetan, eta zuzenean atezainaren aurrean jarri.

Taktika aldetik, bere lerroak aurreratzeak oso emaitza txarra eman dio. Hau normaltzat jo daiteke euren jokoa nola garatzen duten ikusita, hainbeste alditan baloia ukitu beharrrak, hainbat baloi-galtze ekarri du. Horrek defentsa lerroa desegin eta hankaz gora ha-

rrapatu du hainbat bider. Zonakako markaketa egiteak ere ez dio balio izan, ez baitio inortxori ere aurre hartu eta erasotasun hori ere ordaindu egin dute. Atezaina oso kaskar ibili da eta bere defentsarekin eduki dituen ulertezinak emaitza txarrak ekarri dizkio taldeari, bi gol horrexegatik hartu baititu.

Esan beharrik ez dago hainbeste akatsekiri Kolonbiak erreztasun handiak eman dizkiela Errumania eta Estatu Batuei euren sailkapena lortzeko. Baina azpimarratu nahi nuke, hauen merituengatik baino gehiago izan dela kolonbiarren hutsengatik. Kolonbiarrek ez dute ondo bereganatu faborito izatea eta adimen gutxi eduki dute. Beraien azken partidua, Suitzaren aurka, beste itxura batekin jokatu zuten. Hasieratik ikusi nituen denak buzoak jantzita atera zirela. Karakter hori eta Asprillaren kalitatea nahikoa izan zen Mundialeko garaipen bakarra lortzeko, berandutxo izan bazen ere. Orain azterketa sakona egin beharko dute umiltasunez, gero etorkizun onik nahi badute. Zumitzeak badituzte otar onak egiteko, zalantzarik gabe.

Errumaniaren jende oro kalera atera zen festara

BUKAREST

Festa handia egin zuten igande gauean Bukaresten, mundu guztia kalera atera baitzen Errumaniak ordu batzuk lehenago EEBBetako Mundialean lortutako arrakasta ospatzera. «EEBBetako errumaniar agurerik zaharrena, Mihai Zene, 106 urtekoa, Los Angelesko estadioan selekzioa animatzen zegoela jakin nuenean, etxean ez gelditza erabaki nuen», zioen 20 urteko Danut Lipianuk.

Inor gutxi egin zuen lo. Jendeak, balkoietatik botilak botatzen zituen, bonbilak ere bai. Auto pila bat bildu zen Unibertsitateko enparantzan. Honelako jendetza bildu zen azken aldia 1989an izan zen, abenduko iraultzan hain zuzen ere. Kolonbiaren kontra irabazi zuenean ere izugarritzko jende mordo bildu zen Bukaresteko plaza horretan. Baina igandean EEBBetako Mundialeko final zortzirenetarako sailkapena lortu zuen selekzioak, eta festa handiarekin ospatzea erabaki zuen jendeak.